



ALLORA &  
CALZADILLA  
KLIMA

---

**TITULUA:** ALLORA & CALZADILLA: KLIMA

**ARTISTAK:** Jennifer Allora & Guillermo Calzadilla

**TOKIA:** Azkuna Zentroa (Erakusketa Aretoa)

**EGUNAK:** 2024ko ekainaren 20tik 2025eko urtarrilaren 6ra

---

# ARTISTAK

---

Jennifer Allora Estatu Batuetan jaio zen 1974an,  
eta Guillermo Calzadilla Kuban, 1971n.

Puerto Ricoko San Juan hiriburuan  
bizi eta lan egiten dute.

## Beren lanetako gaiak

Beren lanetan, historiaren, ekologiaren  
eta **geopolitikaren**  
arteko elkarketa  
eta harremana ikertzen dituzte.

**Geopolitika:** Lurralde baten  
politika eta nazioarteko  
harremanak aztertzea,  
lurralde horren ezaugarri  
geografikoak kontuan  
hartuta.

Gai horiek artearen bidez lantzeko,  
era askotako baliabide artistikoak erabiltzen dituzte:  
eskultura, soinua, bideoa, argazkilaritza, pintura  
eta publikoarekiko inprobisazioa.

## Ibilbidea

Jenifer Allora eta Guillermo Calzadilla  
1995ean hasi ziren elkarrekin lanean.

Harrezkero, munduko museorik garrantzitsuenetan  
aurkeztu dituzte erakusketak.

Besteak beste, New Yorkeko Arte Modernoko Museoan,  
Portoko Serralves Fundazioan  
eta Bilboko Guggenheim Museoan.

2011n Estatu Batuetako ordezkariak izan ziren  
Veneziako 54. Nazioarteko Arte Erakusketan.  
Aurkeztu zuten proiektuak  
Estatu Batuetako sistema politikoa, kulturala  
eta ekonomikoa kritikatzeko.



# ERAKUSKETA

---

Erakusketa honen izenburua honako hau da: “ALLORA & CALZADILLA: KLIMA”.

Irudikatzen du historian zehar  
izan diren bizimoduek  
nola bilatu duten eguzkirako orientazioa.

Erakusketa honetako lan bakoitzak  
berez du zentzua, banaka.  
Eta guztiek batera unibertsoaren batasuna irudikatzen dute,  
azken 4.000 milioi urteetan.

Erakusketa honetan, Allora & Calzadillak  
beren obra osoan landu dituzten  
gai nagusiak jorratzen dituzte.

Honako hauek dira:  
Historiako gertakari handiek markatutako garaia,  
Lurreko bizitzaren bilakaera,  
ingurumen-arloko justizia, klimaren krisia,  
geopolitika eta energia-iturriak.

Erakusketa honen **komisarioa**  
Fernando Pérez Gómez da,  
Azkuna Zentroko zuzendaria.

**Komisarioa:** Erakusketa  
bateko lanak aukeratzeaz  
arduratzen den pertsona,  
gaian aditua eta erakutsitakoari  
buruzko diskurtso teorikoa  
egiten duena.

## Zer obra ikus dezakegu erakusketan?

Allora & Calzadillak hainbat urtetan sortu dituzten  
lanak ikus ditzakegu.  
Obra horien artean, hauek nabarmentzen dira:

**Graft**, 2021. urtea.  
17.500 lorez osatutako  
instalazio artistiko bat da.

Loreak plastikotik eta pinturatik eratorritako material birziklatu batekin eginda daude.

Instalazio honen helburua da gogora ekartzea Karibeko ingurune naturala suntsitu eta animaliak eta landareak galdu direla giza ekintzen ondorioz.

**Entelechy**, 2020. urtea.

Ikatzeko eskultura handi hau

Frantziako baso bateko pinu baten

egurrez eginda dago.

Zuhaitza tximista batek bota zuen.

**Penumbra**, 2020. urtea.

**Animazio digitaleko** lan honek

itzalak proiektatzen ditu

erakusketaren espazio osoan.

**Animazio digitala:**

ordenagailu baten bidez irudiei, pertsonaiei eta objektuei bizia emateko teknika.

Eguzkiak Bilbo gainean une bakoitzean duen posizioaren irudikapen jarraitua eta denbora errealekoa da.

Obra honetan, musika-konposizio batek laguntzen dio itzalen mugimenduari.

**Cadastre**, 2020. urtea.

Pieza hau oihal baten gainean jarritako burdin zati txikiz egina dago.

Allora & Calzadilla **elektromagnetismoarekin** energiaren mundua esploratzeko egiten dituzten esperimentu artistikoak irudikatzen ditu.

**Elektromagnetismoa:**

elektrizitatearen eta magnetismoaren arteko erlazioa aztertzen duen fisikaren arloa. Gailu askok elektromagnetismoz funtzionatzen dute. Adibidez, labea eta telebista.

**Lifespan**, 2014. urtea.

4.000 milioi urteko harkaitz-lagin bat dago  
aretoko sabaitik zintzilik.

Hiru bokalistak txistu egiten dute  
eta putz egiten diote harkaitzari,  
haizeak higaduran duen eragina simulatuz.

**The Great Silence**, 2014. urtea.

Bideo hau hilean behin proiektatzen da Auditorioan.  
Munduko **irradi-teleskopiorik** handiena du hizpide.  
Irrati-teleskopioa Puerto Ricon dago  
eta irradi-uhinak bidaltzen eta jasotzen ditu  
unibertsoko lekurik urrunenetatik

**Irrati-teleskopioa:** antena  
handi-handi bat eta irradi-  
hargailu oso indartsu bat  
ditu, eta espaziotik datozen  
uhinak hartzen ditu.

Ekoizpena:



Partner:



Laguntzailea:

